



HITZAK



ØDEI



TERAPIA



HITZAK



01- JASO EMAN

Dena hasi zen hamabi urteko
haur baten inozentziatik.
Ene bakea ateratzen nuen
hitzaren biolentziatik.
Eman nahi nion bitatik,
egiten nuen nigatik...
Jaso dudanaren laurdena ematen
badut pozik noa ni haatik.

Hoien ligatik ihes egin nuen
alferrik dira Top Tenak.
Orenak igaro ditut
berdin zait zein diren hoientzat onenak.
Omenak heien buruari,
ordenak kanpo munduari.
Nora noan ez dut hain argi baina
ez dit ihes egingo trenak.

Mantendu ala aldendu...
Ez kendu ala hartzen dut...
Hilik nahi nauzue aizue
ez naiz oino zendu !
Lausenguz lausengu ez naiz ibili
hamaika lili erabili dituzte
nahiz ta gero ximeldu.

Sare tipo patetiko
hoiekin ez dut bat egingo,
arketipo batek ito ditu
ta bizi dira berarekiko.
Ni ez naute beraiek hilko,
erran arte erraiek kito,
jada ez dakit nork duen egia
ta zer bilakatu zaien mito.

Eraso ezkerro gaur'e
nik eginen diet aurre,
ateraiak ditut lau eh !
ta ez dira izan cum laude.
Herri hau ez bada ene toki
« ØDEI zeren zai zaude ? »
Ez dut tiro egiten gratuitoki
balak garesti daude.

Zurien artean beti gris,
hitz hutsal oro dakusat hits,
anitzek ez luke eginen hitz
debalde debalde errana ordaintzen balitz.
Egurtzen nautenek ez naute beldurtzen,
hala izanen zela segur zen,
jin zaitezte nigana banan bana
ez bainaiz hasiko neurtzen.

Ei o ! Begiak ditut erakusleiho.
Barkatu lagunak maiz isiltasunak
dio hitz askok baino gehio.
Berinetan lurruna,
begirada zurruna,
besarkada leguna...
berriz ni naiz laguna !

Zuhaitzak landatu nahi ditut
nahiz ta fruiturik ez bildu,
kikildu izan naute ta orain ezin naiz isildu.
Umil gu genbiltzan,
amildu gaituzte,
berdin du zer gisan
hurbildu nahi dute.

Mintzo zaizkit batzuen klip
bateko klik kantitatez,
jolasetik bizi naiz ni,
jokoaz ez dakit batez.
Anabasa jasan
kritika jasaz bete da plaza
harrokeriaz ez pasa
noiztik masa elikatzen da kalitatez ?

Bakoitzak bere bideak, bere ideak,
familia, rapa ta euskara dira
ene eremu libreak.
Askok galdetzen du zer zen,
hasiak gira gu lehertzen,
berdin zait ulertzen ez baldin banaute
nik ere ez ditut ulertzen.

Jaso, eman, eman, jaso,
hoien eran erran paso,
gerran hegan zenbat lazo
baina ileran denak mantso.

Saihestua, babestua... denetarik pasa da txo !
Gaur prestua da jestua baina eskua ukatzen atzo.

02- ZINEZ

Hainbeste rapero matxito ta bero
ikusten ditut egunero,
ero bilakatzeraino,
eta ni laino baten oraino bizi naiz edo?
Jokoan hunki nahi bada gero
edukiz eta errukiz zero,
hau ez nuen espero:
horren ipar gutti ta hainbeste Ego.

Orroka hastea da haien porrota,
ahantzi bezate oilarren borroka.
Lerrotan pausatzen dut ene erronka,
usu nabil joka baina nere kontra.
Neri ez zait egoki nota,
nahiago ez erori hortan,
ze eredu ze toki mota...
Redbull eta skyrock-i boikota

Hater, master,
ez naiz izanen hoien maizter
Laster bazter baten geldituko dira
eta zer ?

Manager anker,
alfer hoiekin ez dut hartuko plazer.
Halaber seme alaber
honek ez dizkie beteko bi plater

Ez ote dute entzuten deia?
holakorik entzun al zuten deia?
Eia, eia, bi mila ta hogeia
gainditu al ditu ditugun ideiak?
Neurtzen ez dituen entseia
zein den bata eta zein seia.
Kultura eskura heldu da
eta jomuga ez da lehia.

Ardurak eskatzen
kulturak ez al ditu kezkatzen?
Loturak eratzen,
ohiturak ez al dira geratzen?
Hala bazen ala ez bazen:
ez Sgae ta ez Sacem.
Ez dute esku librerik galtzen
nik ez dut eskubiderik saltzen.

Behin jarritako etiketa bik
nahasi naute metriketan ni.
Ez dut nahi etiketarik,
ez dut edaten hoi en etiketatik.
Ta tik tak tik doaz orratzak
badakit zer den lokatza
haatik ene lorratza
uzten dut ez galtzeko norantza.

Estu sentitzen naiz besterik ez dut,
prestu egotea ez da ene esku.
Amestuz abestu dut,
ez naiz babestu,
aurkeztu naiz
ta ez dut epairik aurreztu

Ez gaitezen izi
baina ikus liteke aski nabarmen
Ideien ihizi
bat bizi dugu eta guztiok amen
Askatasun krisi baten gira bizi
Hemen ez da jokatzeko garden
Galdegin Hasel eta Freeze-i
repeatzea libre al den.

*Ekin, lotu
huts egin, lortu,
ezin zigortu
ez ginen isilik egoteko sortu.
Bidea eginez gogoz ta ekinez autoekoizpenaren bidez,
musikaren business hori ekidinez posible da,
zinez!*

03- NI ETA BERA

Ni eta bera, bera eta ni, ni eta nere kerak,
kerak eta ni ni eta nere erak, aukerak...

Beste egun bat topera,
noiz joko du hobera?
gauez ohera sartu ta lokartzea hobe da.
Ikusiz egoera ez dakit zuk
mirailan bi ikusten ditut bestea nor ote da?

Ez dudala hartzen arriskurik ?

Bai zera !

Aitzera heldu naiz ene kontrako txisturik...
Ilunpetan idazten dut hontan sinisturik, gainera,
argia pizturik lo egiten dut, zeba?

Listurik ez dut gastatzen.
Gainbehera egitean gau bat osatzen dute goiz bik
jakin nahi nuke noiztik
begiratzen nauten goitik behera...
Hemendik goiti,
nik hautatzen dut soilik manera.

Erantzun bat izate aldera
asmatzen dut galdera,
haizea alde da, ai ze aldera joan behar dut
ene burua zaintzera ?
Norberak bere urratsa,
ez gira jin lokatza apaintzera !

Ze ibilera bileraz-bilera,
euroa, libera... libera gaitzeke,
Luzaten doa pole emploiko ilera,
sentitzen naiz minbera :
gaur bera ez da ni
baina agian bihar naiz ni bera.

Ez al da akabera ?
kamera artean karrera ikusten dut
nork gehiago bete kartera...
Ados, kalera zatoz ondoko kafera,
biak partekatzen ditut : mahaina ta baxera
ta prest dut lehen platera.
Zenbat aurreikuspen ez dut hozten uzten
aurreikusten dut plazera.
Arkatza ta papera ia nere parte da,
dena batera atera nahi nuke,
zatoz lerro artera !

Sartu nahi nuke barnera,
berriz hamaika barrera.
Behin igarota sarrera
zein da zai dudan harrera ?
Borondatea ta jarrera
hartu, sakelean sartu,
oldartu ta aurrera.

Euskalduntasunaz entzun dut aski ta sobera,
ez dakit konprenitzen den ene kolera...
Ahaidetasuna ez dut laburbiltzen odolera,
familia bat dut ta denek ez dugu odol bera.

Begiak legera erdera lege da...
Ahazten diren hiru lurralde ez daude alegera...
Galerak eraman nau burua galtzera,
batzuen antzera ez nator fikzioa saltzera.

Joan zaizkit zenbait oren,
gorenetan goren sentitzen nintzen
eta horren ondoren amildu naiz behera.
Hola naiz ni , usu gaitz bi heldu zaizkit
eta gaizki jaikitzeke txikitatik nahikoa dut bat bera.

Hasten den oro doa bukatzera...
Anitz heldu zaizkit ene lana ukatzera.
Ados, kritika egin duzu polita,
ezarri bita, tita,
ea bitan nork egiten dun atzera !

Ni eta bera,
bera eta ni, ni eta nere kerak,
kerak eta ni ni eta nere erak,
aukerak...

4 - BARKATU

*Erraten badut barkatu
sentitzen ditudan hitzekin
ezin naiz gehio korapilatu.
Nahiago zintzoki hitz egin,
ene hitzak ez bilatu,
gibelera begiratu
ene aitzina argi dadin.*

Barkaidazu ama nere iragana ezin dut aldatu gerora.
Orain banan bana datozkit nigana pasatakoen metaforak :
goxoki joan zure ondora, beso artean nadin hondora...
Heriok itzuliko al digu bizitzak ebatsi zigun denbora ?

Barkaidazu aita ez dut egin nahita baina maiz sentitu dut
lotsa.

Ene etxekoa ta bihotzekoa zergatik egin zait arrotza ?
Amaren heriotzaren osteko gerra hotzak
erakutsi zidan zentzu guzietan ideki zaizula bihotza.

Barkaidazu anaia, ttiki ginen garaian
ibili banintzen ene lekua atxeman nahian,
Inoiz izan dituzun dudak sortu badizkizut,
eskaini didazunetik zerbait kendu badizut...

Ta zuk ni, ta nik zu... ta guk ni, ta nik gu...
Lehen minen gatibu izanagatik gu,
ederki dakigu dolua darigu,
baina uzten badigu hemen maitasuna ari du.

Barkatu arreba badakit topera ditugula gure plangintzak.
Aitzakia bera uztea hobe da ez baditut jarri baldintzak.
Ekarri bezala eramán ditzala hain zerbitzala den bizitzak
gure gardentasunak ekarri dizkigun momentu grisak.

Abuelak abuelo darama ta aititek berriz amama
Joan zineten banan bana, itzuli nahi dut zuengana.
Ta usu dolu dut garai batzuk haur gisa bizi izana...
Milesker etorkizuna eta barkatu iragana.

Barkamena eskertzen da nun eta ez den meza,
damuen alde ona aztertzen naiz egona
ta iritsi naiz hona. Ez da zaila ez errexat.
Hutsaren ondotik ezin da heldu ezereza.

Ez al da gauza ikaragarria
gure erregela?
Ez al duzu uste denik larria
hola banatzea pastela?
Ahazten gaituzte ez da berria
badakigu dakitela,
iduri luke Euskal Herria
Bidasoan bukatzen dela.

Etikaz musikaz eta politikaz
aritzen dira ardi larruz jantzirik.
Handikerietan ttikien hitzak
maiz ez du izaten garrantzirik.
Aspalditik euria ari du
Zer gira ari gu?...
Ongi dakigu Euskal Herriaz mintzo zaizkigu
zazpitatik hiru ahantzirik.

Ei! ei! zergatik bi alde?
Denei egin al digute galde?
Zer da iparralde
hiru lurralde daude,
orotara zazpi ala sei ?
Nork ditu mugak idatzi,
marrak ebatzi, galdegin gabe...
Estereotipoz ez jantzi
Ez zazu ahantzi:
hemen « Frantzin » ez zaude

Ardurez harago
airera doaz balak
Argiak baino gehiago
erraten du itzalak
Gaurkoak lehengoak,
zatiketazkoak, ofizialak
baina ez al dira handiagoak
ditugun muga menatalak ?

ETB-ri begira aski argi da
nun jotzen den partida.
teleberrian gure hauteskundeak
laugarren albistea dira.
Oldartu onartu baino,
Nola heldu naiz ni honaino?
Hegozentrismo hitza h-rekin idazteraino...

*Zergatik ditugu erdigunean begiak?
Ahazten ditugu bazterrak eta hegiak...
Zer ote gira gu? ttikiak, ttikiegiak...
Ez denez berandu mintza daitezela periferiak.*

Ezagutzean korronte orokorra
hartu bide zidorra.
Izanagatik sendoa gogorra
adarrik ez badu hutsik da enborra.
Ea, e ! ez da derrigorra
EAE izatea zilborra.
Ez zenuten ahantziko horra
Nafarroarekiko dugun zorra.

Gure korapilotan gu borrokan
hain modu prekariotan,
ez dira gutti lotan, gu zilotan,
hau ezin da utzi hortan.
Ulertzera iritsi nahi dut lehenbizi
gu zergatik bi mundutan bizi,
Aurreiritzi bitxi hoiei hobe zaie atea itxi.

Gauzak aldatzen dira mantso,
gaur ta atzo jaso dugunetik eraiki gira,
begira, nola ez egin paso
ustezko euskaldunek ere deitu banaute "gabatxo".

Hoiek erkidetik gu gure erpinetik
ez goaz bide berdinetik.
Izan ekinetik nola ezinetik
egiten dugu girenetik.
Hoien aldetik, hoien taldetik,
baztertu gintuzten estalpetik
Eguzkia baino gehiago ateratzen ari da ekialdetik.

Zergatik ditugu ...

Heda ditzagun mezuak ta kantak,
errealitate ezberdinen mapak,
ez nau kezkatzen iritzien talkak,
ni kezkatzen nau ezagutza faltak.
Ireki begiak,
aldatu ditzagun ikuspegiak,
hitz berriak behar ditu hiztegiak
mintza daitezela periferiak.

o6- Zer nahi genuen ?

*Zer nahi genuen ? Denetarik.
Zer izan dugu ? Erein ta bil.
Ze izanen dugu ? heren bat hil.
Zer nahi genuen ?*

Ez dut nahi ustelik jada ez dut usterik
urteetan ez nuen uste nik.

Geronen kontrola, geronen kaiola
geronek sortuko genuenik.

Guzia dakusat laino,
nola heldu gira honaino ?
Etsaien lagun bilakatu gira
lagunak etsai bihurtzeraino.

Karriketatik goaz mesfidati
eta errua beti beste bati,
ezkerrera edo eskuinera joan
GPS gabe ezin erabaki.

Karrikan zehar mikrorik ez da behar
bakoitzak berea daramaki.
zer da errealitatea
fikziorik gabe inork bizitzen ez badaki ?

Zuria ala beltza,
larrosa ala asuna,
zein erraz itzali diguten
kritikarako gaitasuna.
Osasuna, nahi duzuna
saldu zaidazu laguna.
baina beldurrak itsutu gaitu
ta ikusten dugu berak nahi duna.

Lehen nola orai pasa ta gero ai
kontraesanetan egon hai.
Jendeak zer nahi du,
gehiago ematen zaigu ez baitugu guttio nahi.
Elkarriketan manuak nornahik,
karriketan mamuak nonhai,
txarrena onartzera iritsi gira
gure ustezko egun hobeen zai.

Zenbat lobby dauden lodi...
Haiek tori zu erori...
Ta berdina edonori
zer da hoiengandik nahi duzuen hori?

Jokoa ez da zuzena bate
baina fini da xake mate,
izan nahi baduzu zuk honen parte
obedi ezazu puntu ta aparte.
Aski kate, aski kalte
ezarri zaigu gaur arte.
Geldi dadin isiltzen gira
baina isiltzen girelako segi dezake.

Ez dugu besteekin bizi nahi
baina ezin dugu bakarrik bizi,
jada poliziarik ez dugu behar
gu geu gira geure polizi.
Balkoktan daude epaileak,
sareetan lekzio emaileak,
atzoko errebeldeak dira
gaur dugun sistemaren bultzatzaileak.

Zuentzat jolas baloia, zuentzat diru taloiak,
zuen belardian jolastea baino
nahiago basa ta lohia.
Beti mukan, beti dudan...
ez al betikoa gudan ?
Abstentzioaren demokrazioak
asumitutako diktaduran.

Gizarte bat bi taldetan,
hutsuneak bi aldetan...
Oin hotzak ur beroetan
ta gainekoak irriz bulegoetan.

Egunez egun, aroz aro globoari so nago
mago sentitu nahi nuke
baina ez dut uste naizenik ezer gehiago,
akabo, harago joan nahi dut
baina ez naiz nik nahi aina,
ezin marra igaro...
Inoizko gizaki gehien gaude
ta inoizko gizatasun gutxien dago.

07-ONDOAN

Hasten naiz kantari eta hariz hariz
ikusten ditut hitzak harilkartzen ari
nagi nintzen garaietan nik ere haietan
gerizpe bat izan dut opari.
Nik odola ez dut beti garbi
baina hola ikusten dut argi
Badakigu biok zerbait zor badut zor diot
bizitza eman didanari

Eta nik nerez urteen nekez
barneko xedez besteen legeez
hain modu trebez
ene interesez nik egin dut ihes.
Dena aldrebes dakusadanez
badakit berez ez dela errex,
gorroto nautenek ez naute ezagutzen,
maite nauzuenek ere ez.

Hautsak gauzak harrotzen ditu barne iraultzak,
pausak beharrezkoak dira ukitzen bazaitu kausak.
Lanabesak ta babesa eman dizkit doluaren artisautzak,
ororen kronologia hori da: egurra sua ta errautsak.

Hezi naute eta hazi naiz ta badut zer ikasi
gezi bat, bi mazel gazi, hesi bat... ta nundik hasi?
Bildu dut hau gainditzeko aina, hau da biziaren metafora.
Salto egitera noa baina ez dakit behera edo gora.

*Batzutan ez dakit zer dudan gogoan,
besteetan ez dakit nor dudan ondoan.
Ta nola jakin nor dudan begira?
Batzuk ez dira hil eta joan dira,
besteak hil dira baina ez dira joan.*

Noizbait eman dut nik pena
ez naiz lehen nintzena nonbait.
Nornahik sartu dit eztena
batzutan ez dena baita norbait.
Nor naiz? galdetuz aurrena
erantzun zuzena zor zait.
Errazu nor zaren berdin zait izena
torizu barrena kanpoan ez dut nehor zai.

Barna askatzeko uzten dut aztarna.
Alarma pizten dute baina
pikutara hoiien big pharma.
Hamarna pikura baino
nahiago testu baten xarma.
Ez naiz joan ospitaleraino
musika baitut sendatzeko arma

Ikusirik nola dabiltzan epaitzen
ene esku da nola ikus nahi naizen,
hankek ez badute bidea jarraitzen
nahiago dut hasi zeruan sustraitzen.
Ama galduz aita joan zen
Bista blaitzen hasi baitzen.
Biziaren mailuak jo nau
baina saiatzen naiz ez epaitzen

Dena ez da borobila:
marrazoak datoz odol bila,
arazoak izan ditut pila...
Hara soak luzatzen nabila,
ai gaixoak, ez naiz hain abila,
hain gaixtoak ez zarete mila
baina aiztoak zauritzen banau ni garbitu nadila.

*Batzutan ez dakit zer dudan gogoan
Besteetan ez dakit nor dudan ondoan
Ta nola jakin nor dudan begira?
Batzuk ez dira hil eta joan dira
Besteak hil dira baina ez dira joan*

08-ZE PREZIOTAN?

Barnekaldea zein kosta
gabiltza kosta ala kosta,
koxka bat igo da aizue
erraidazue nun dago koska?

Ozta ozta gabiltz inbaditzera datoz ta,
hozka egin beharko dugu edo etxetik ospa.

Ttiki girenetik pasa da denetik
merkatua libro denetik.
Zein da esperantza gure laborantza
desagertzen hasi zenetik?
Dakargun pausu herrenetik,
ikasi dugu barrenetik,
izanetik zer gelditzen da
jada galtzen ari ginen izenetik?

Ados, gaurkoz diru gehiago dute askoz,
luxuzko autoz datoz ta etxeak urrezko gako.
Aspaldi gelditu gira motz ta hotz,
zenbatetan sentitzen giren gure herrian arrotz.

Zinez betetzen al ditu bihotzak
bling bling merkearen hotsak,
gordin bete diren moltsak,
izkin egin al die lotsak?
Sosa, poza, ikusten dira berdin...
Ze min duen bakotxak,
ezin dira jarri kakotxak.

*Zein gustagarria zaien,
deitzen diote glamurra...
Beste batzuk lur saltzaile,
dirua zein den makurra.
Ahantzia ote dugu zein
dugun epe laburra,
ez dela bizi emaile
behin betoinez jantzi den lurra.*

Noiztik bakantzak batzuentzat dira luzeo?
Noiztik etxeak erakuslehio
eta portuak museo?
Etor ditezela nahi duten bezela
ordain dezatela hotela
baina ez astebete igarotzeko
bost hektareako partzela.

Guk ze diglosi metamorfosi
salgai dena ezin erosi,
Uda negua bi dosi:
zibilez jantzi, poliziz josi...
Berdin zait egun zein bi,
begira zenbat airbnb,
ta urtean guzia geldi
ez al zizte gaizki sendi?

Joan zaigu denbora,
mila promotora jin dira gustora.
Zelaiak betoinez bete,
lurra ez liteke eurotan balora.
Prezio hauekin jakin nahi dut jakin
gu nora goaz nora?
Lurra salgai bada barkaidazu hara
guk saltzen dugulako da.

*Eta ni orain nun nago,
ene barrena dut sutan,
hemen geroz ta gehiago
ez ote gira bizi lur antzutan?
Begirada urrunago
ez da eraman behar batzutan
Baloina gurean dago
ez xekatu besteen teilatutan.*

09-ENE LURRETATIK

*Ene herria ez da 64
honek bere horretan dirau,
nik nahiago dut enean iraun
gauak egun dira eta egunak gau.
Kulturen bide gurutze da hau,
ez lege arrotz eta ez arau.
Ni ez naiz karrikan handitu
baina karrikak handitu nau.*

*Iraganeko papurretatik
erran zidaten ez dela urrun joaten
bide laburretatik.
Heldu naiz bide makurretatik,
Euskal Herriaz mintzo direlarik
ahazten dituzten lurretatik.*

*Gure lurretan, gure muturretan,
ikusi izan dut ekaitzik.
Ez dut gezurrik kontatu nahi,
ez dakart egirik nerea baizik.
Zer egin ote dut gaizki?
Rapa ene gisara eginez hara joan zait hamarkada...
Ene bolada pasa da jada ez dut espero emaitzik.*

*Nik ez ditut oinak urratzen,
eskuetan dut izerdia,
Inor hasten bada luzatzen
irensten dut hitzen erdia.
Segi nahi nuke trukatzeko
ez da bukatzen errimategia.
Ez dut eskola zaharra ukatzen
dastatu nahi dut berria.*

*Hitzekin ez dela mugitzen harririk?
Gauzak berera ekarririk
ez da gauza ez lorgarririk.
Ez dut nahi oroigarririk,
ez naiz geldituko jarririk,
mihia bai ez al dute belarririk?*

Berdin zait cd-z, kasetez, biniloz,
mihia ez zait korapilatzen biloz
Ene paper, ene hitz eta eztiloz
barkatu ez badut aldatzen estiloz.

Ene eremu libreak dira
familia, rapa eta euskara.
Axola zaidan iritzia
hau konprenitu nahi dutenena da.

Orrria itzul dezakegu,
ez ote dugu aski sosegu?
Selektah, Su Ta eta Negu
soilik nituen hamabi negu.
Iam, Youss ta Kery eredu,
zenbat min ezin eta ernegu,
Garaiak mezua erre du,
ez giten erre gu.

Goizero zaintzen dute ero bat bik
agian naizelako ero bat ni
baina ez badoaz tenpora nik
ez du denbora galtzeko denborarik.
Hilko naiz gero, bizi naizeno
Jainkoaren lurra hau bada
jada ez dut zerurik espero.

Ene ingurua ta ene burua
ikusi dut gaur arte eri,
norbera bere zilborrari so
ez transmisio ta ez kate begi.
Kasurik egiten lekzioak
eman nahi dizkidateneri.
Irakaspenik onenak eskolatu gabeek
eman dizkidate neri.

*Ene herria ez da 64
Honek bere horretan dirau
Nik nahiago dut enean iraun
Gauak egun dira eta egunak gau
Kulturen bide gurutze da hau
Ez lege arrotz eta ez arau
Ni ez naiz karrikan handitu
baina karrikak handitu nau*

10- OROITUZ AHANTZI

Ez nintzen lehena eskolan,
ez nintzen lehena idazten,
maite ez dudana ikasten
izan dut nahiko lan.
Isolatzen naiz etxolan,
libre hazten naiz nere kaiolan.
Voldam bati bi trago
eta ez dakit gehiago nor nor dan...
Nor hemen nor han, nor sobran,
neri bost zer duten modan!

Harritzen nau haur batzuen dantzak,
asteroko pagak bitik behin bakantzak,
markazko tixertak, galtzak...,
Nik 18 urterekin ukan nituen lehen vans-ak.
Har zak !
Balantzak desorekatu ditu gure norantzak,
larrosak saltzen ditugu ez arantzak
baina halakorik ez du ematen baratzak.

Ezin atxeman,
horrenbeste harreman galdu ditut,
«salbu nik zu » saldu dizu
diot neregana.
Nere eran
barne erruinetan noa hegan,
nahiago baitut ur berria edan
nahiz eta iturri zaharretik edan.

Larrua tiraka erantzi...
Barrua pixkanaka jantzi...

Hartzekotan ezti bala ez naiz ni gai,
arazoen espiralak beti ni nahi.
« Nik bai » pentsazen dut jada
“ez da traba joaten bada ondoren baditut bi zai”.

Apaingarriak mahainean dira denetan
baina egia azkenean tiraderetan
pilatzen bertan,
bilaketetan,
mudu bera bizi dugu bi planetetan.

Bakoitza bere talaian,
bakoitza bere garaian
iragana laudatuz nunbait oraina estali nahian.
Nik ene azken bidaian
aurrez aurreko pasaian
lasai ikusi nahi ditut zimurrak bisaian.

Herio aurrez aurre ikusi dut bitan,
guttitan utzi dut nik han.
Utikan! Bizi nahi dut oraina
baina ikusten dut xoko guzitan.

Amak errana zidan lehen :
« Ihes egin inbidiatik kabitik joan arren »,
Nik txoria hiltzeagatik
badakit ez dudala bere hegorik izanen.

Ez nintzen sortu ahal duna,
hemen bakoitzak ahal duna,
emaidazu nahi duzuna
nahiago zintzotasuna,
dioten askatasuna,
saltzen den normaltasuna,
larrosa itxura asuna...
Zer ?

Eskutan hartzen dut luma
osatzen doa bilduma.
Inoiz banaiz ezaguna
ez zait puztuko garuna,
ez dut ahantziko laguna,
iraganeko jarduna,
heldu naizelako huna
guzieri esker.

Larrua tiraka erantzi...
Barrua pixkanaka jantzi...
Oroituz ahantzi...

Zu bai zu
 zu ta zure oasi
 hortan maisu zara,
 gai zu zara
 aldiz ez dena nahasi.
 Haizu zaizu baina aizu
 ez zaite hazi,
 besteen errimak kritikatzan hasi aitzin
 errimatzen ikasi.

Zein zara aritzeko ateak ixten?
rap game hortan ez dut sinisten.
 Pizten dituzun suak faltsuak dira
 ez dira kera iristen...
 Konplexuak ez al dizu eragiten ?
 Ta mezuak hobe horrela ez irten.
 Gaietik ibiltzeak besteak txikitzeak
 ez zaitu handiago egiten.

Sosa, Villak, klipak, auto garestia...
 Matxista xenofoboak dira zure abestia
 Ez dakit pentsatzen duzun diozuna
 edo besteei entzuna den
 baina ez duzu bi aldiz pentsatzen erraten duzuna.

Egurtu, beldurtu,
 ahal dela beste guziak makurtu.
 Ez puztu, hain justu
 horrela mintzo dena hobe mutu.
 Antisistema zinena, eskema da aldatu dena ze pena
 orain zarena da sistemaren produktu.

Zuk utzi zure meza, kexa errexa...
 egin baina ez epaitu
 Zure ametsa prentsa bada
 hobe hasi aitzin amaitu.
 Aitu, eraso bada zure babesa
 ahanzi estresa, presa rolexa...
 Denborak zure lekuan jarriko zaitu.

Neri berdin zait zenbat like dituzun
 horrekin norbait izan nahi baduzu.
 Zure mirailan zilbor bat ageri da,
 ez da hain zaila konplexuak mintzo dira.

*Zu eta zure burua,
Zu omen zara burua,
Zu ta zure ingurua...
askoz handiagoa da mundua.
Zu eta zure eroa,
Zu ez bazaude ez doa,
Zu eta zure geroa
Egoak moztu dizkizu hegoak.*

12- GHETTOTAN

Zilo gehiegi dut hegotan
ez dut sinesten egotan,
lelotan oinarritutako lerrotan.
ikusiak ditut lehen hortan.
Zentroan dabilta lehengotan
harresiak eraikitzen Legotan
Nola ez hasi harrika
karrika ez da egiten bulegotan.

Aldiro, astiro datozkit askotan
ghettotan ez delako giro
arreba-anai dira ene gogotan
ta gugana nator berriro.
Ez dut eskas izan eskolarik,
etxetzat ez dut etxolarik,
klipetan ez dugu pistolarik
baina hoien alde egiten dut tiro.

Erran, argi,
gerran ez da jokatzeko garbi.
Egon, adi,
nehor ez da guretzat ari.
Ulertzeko ez al dira gai bi
herri ttiki hunetan gaindi,
gutariko jotzen ez dituztenekin
Identifikatzen naiz ni.

Zuen kanapeetaraino iritsi da zalaparta
Barka, baina zer egin duzue ez dadin zarta ?
Bakoitzak du marka,
bakoitzak jokatzeko du bere karta
Nere inguruan ikusi dut
ezjakintasuna zein den ausarta.

Tinko ariko naiz zintzo,
kito, jada ezin naiz ixo...
Zenbat mito aitu dituzten ez dakit
baina beti berdinari so.
Usutan galdera dut berberak al diren mintzo,
batzutan hobe da joan ertzera entzun eta ixo.

Ze kolore gutti duen zuen paletak,
lehen hesiak ziren orain paretak...
Berdintasunean sinestea zaila
ikusirik gure inguran dugun arrazismo maila.

Ahantzi preferentziak,
erreberentziak,
erre ditzagun, erre herentziak
ez dira berdinak erreferentziak.
Periferien mugimendu
horretan zentrotik aldentu
ginen eta hor segitzen du
erresistentziak.

Harrera herri zinena
dena da itxura eta zinema,
beti batzueri deus besteeri dena
hori al da oino gure dilema?
Azpikulturatzat eta inkultotzat ditu sistemak,
nik ezin ditut ulertu horiek ulertzeko gai ez direnak.

Berean dirau
ez, ez, Baiona ez da 64!
Egun eta gau
kulturen bidegurutze da hau.
Baztertuek, ez-ulertuek,
sistemak lehertuek, ez dutenek ahalik
zergatik ez dute aterik zabalik ?

*Anartean gurutza ditzagun errimak,
Ostatu teilatupe berean hartzen du ezinak.
Ohartu, onartu ez garela hain desberdinak,
beraien paretak eta etiketak ez dira guretzat eginak.*

Ene burua gelditzen ez bada
 nahiago denbora geldiarazi,
 gehiegitan ahazten nauen aita bat
 eta oroitzen ez nauen amatxi...
 Ez dut kontatzen deusik nahitara
 momentu batez hobe ahantzi,
 nahiago dut bildu ene baitara
 ta paper baten idatzi.

Jada berdin zait ez badira zai
 horrenbeste sai, kritika epai,
 badabil nunahi ez dut jakin nahi
 nigandik ihesi zer doan.
 Ez dut uste ai hainbeste dohai
 dudarik orai, ez dut nehor zai
 ulertzeko gai izan nahi dut bai
 zerengandik ihesi noan.

Sabaia ari da aldentzen
 lurrean nago etzana,
 nahiz ta hunek nauen asetzen
 ez da nere ogia ez lana.
 Zaila da isilik mantentzen
 ez delarik argiki errana,
 ez digute guzia kentzen
 baina ezer ez da emana.

Parean ezarriz bi begi
 aurpegiz-aurpegi erraidazu neri
 malkotan igeri gehiegi egiteagatik nagoela eri.
 Erraidazu errautsei begira
 noiz den gezur eta noiz egi.
 Gauzak berant iristen dira
 pertsonak badoaz goizegi.

Eta ez dut kontatzen deus berri,
 agian ni joanen naiz bihar.
 Bizitzan egin dut aski nigar
 hiltzen banaiz egizue irri.

*Jada ez ditut kontatzen gauak,
 ez gaubelak ta ez barauak.
 Ahantzi nahi ditut arauak
 joan dira hogeita lauak.
 Bakarrizketan...*

Egunak ez doaz luze
gauak gelditzen dira motz,
gehiegitan apainduak
amorruez eta biraoz.
Ez dute minik eman nahi
mina askatzera datoz,
min ematen badizute
zure problema da, ados?

Batzutan nabil jo ta ke,
beste batzutan J&B
nahasi zaizkit goi ta behe
hemen hitzik ez doa jo gabe.
Puzzlea osatuz, eraikiz, landuz...
Baina egunero pieza bat galduz.

Bihotz bat ez da neurtzen
eman dituen taupadetan,
esperantzaren lautadetan
gu ere banatu ginen lau taldetan.
Igaro arren gaua bertan,
sentitu arren lauak betan
berriz kolpatzen banau zertan
sinetsi bere arauetan?

*Jada ez ditut kontatzen gauak,
ez gaubelak ta ez barauak.
Ahantzi nahi ditut arauak
joan dira hogeita lauak.
Bakarriketan...*

14-TERAPIA

Drilla da euskaraz jantzia,
begira, ni ez naiz yankeea
hau da azken baten
jaten ematen ez didan jakia
hitzak, zenbakiak...
nik eztakit zenbat ia.
Zergatiak sortu dizkit ebakiak
aurkezten dizuet nere terapia.

Badut aski laino eta ekaitz
nere barrura begira,
ez dakit beti nabilen garaiz
han berandu da hemen goizegi da,
nik ere maiz gaitz
bilakatu dut ene desira,
ni errateko prest naiz
entzuteko prest al dira?

Erabakiak erabaki,
bakoitzak bere karga daramaki
ta bihoz dun gizaki bat izaki
ni ere egiten naiz bi zati.
Dudati nabila lubaki bila...
mila aldiz erran diot "aio"
usu mintzo natzaio
entzun ezin nauen bati.

Irekitzen dut azala
nahi dunak dasta nazala,
hitzak bala balira bezala doaz
hala ahal dunak segi ditzala.
Maiz da presio ta obsesio
zer den tradizionala,
ez nahasi alienazio
ta aniztasun kulturala.

Eta oraindik, nola hala...
ez da ordainik, normala !
Ez da orain nik, orbainik nahi dudala
baina hobeki hartzeko nik guzia bota behar dut ala?

Ez uste zerupe
honetan oro denik musutruke.
Guk'e bertute
gutxi dugula erranen nuke.
Ez jakintsu ta ez ilustre,
zintzotasuna urtez urte
guk hitzak idazten ditugu
ta hitz horiekin irakurtzen gaituzte.

Boom bapa, drilla, trapa...
aberasten ari zaigu mapa
bi mila hogeita bata bada data...
alta hogei urteko beranta daukagu
jada berandu da ta
baina, kanta!
Ez dadin ahots berririk falta.

Dagona entzunik,
ez erran honek zentzunik ez dunik
airera doan sputnik batek bezala
mugarik ez dut nik.
Barka ez badut ulertzen tutik
baloreei atxikita zutik
garaiari heldu nahi diot eskutik
Kritika nazatela lehen testutik.

Badut aski laino eta ekaitz
nere barrura begira,
ez dakit beti nabilen garaiz
han berandu da hemen goizegi da,
nik ere maiz gaitz
bilakatu dut ene desira,
ni errateko prest naiz
entzuteko prest al dira? ç

Drilla da euskaraz jantzia,
begira, ni ez naiz yankeea
hau da azken baten
jaten ematen ez didan jakia
hitzak, zenbakiak... nik
eztaikit zenbat ia.
Zergatiak sortu dizkit ebakiak
aurkezten dizuet nere terapia.

15- ARI

Ez ditugu hautatzen sortzea ta denbora
baina gerora hautatzen dugu zer, nola, ta nora.
Zer tarte gutti dagon kausatik ondoriora:
oraina iraganaren ondorio da.

Zazpi hilabete bete gabe sortu nintzen, sorpresa,
Barakaldon nindagon, ez zen izan errexax.
Jaso nuen oparo maitasuna, babesax...
Goiz hilko naiz baina bizirik nago ez kexax.

Handitu ta hazi nintzen lapurdi partean,
ahazten dituzten hiru lurraldeetako batean,
ene plazerrak uzten nituen paper artean
barne gerrak eta herrak utz nindezaten bakean.

Ta hasi nintzen idazten, besteengandik ikasten,
ikasia ahazten ta berriz zerotik hasten.
Akatsa dut irakaspen,
ez nintzen galtzaile baina ez nekien irabazten.

Hamabi urte beteta aitzen nuen Selektah,
nik ez dakit ze sektatik atera ziren Daddy jeff,
wanka ta DZeta, liberak ta pezetak,
utzi nituen ene orduko cdtan.

Ikasgelan sobera luze zitzaidan afera baliatzen nuen aukera
ta galdera zen errima.
Denbora aurrera doa ez naiz orduko bera baina arkatza ta
papera hartzean sentitzen dut berdina.

Ta poza nola mina eman dizkit
bitatik nik haatik nigatik ikasi dut hemen.
Ainitz ikasi dut irakasleengandik
baina batzuengatik balitz ez nintzen hor izanenen.

Gauzak ez dira emanak, entzun ditut erranak,
"zuk zaindu zure lanak" erraten zidan amak,
"zuk zure barna aitu senari jarraitu
ta noizbait poztuko zaitu hortan saiatu izanak".

Haizea ez da beti alde...
Ez gira ororen jabe...
Zergatik ari nintzen ez nekien, segitzen nuen hala're,
orain ezin dut segitu zer egiten nabilen jakin gabe.

Zerura begiratzeko badut lurrean ez naiz sentitzen bakarrik.
Ez dut izar bat izan nahi, lurrean ez da izarrik.
Hamabi urte joan zaizkit beharrik eta ba ote du txarrik?
Gaur gure aroan ez da luzaroan
iraun dezakeen lorpen azkarrik.

Lotzen ninduten kate hoiek sortzen
nituen artean ez nuen lortzen,
zigortzen nuen nik ene burua
ta ene ingurua ari zen itotzen.
Zenbat aldiz bihurtzen zoro pozak ta minak ezkontzen.
Denborak erakutsi dit ematen den oro ez dela jasotzen.

Bihotza harriz eta, harria goroldioz,
lan hautuaren auto lan bat da hau ondorioz.
Neretzat ari naiz serio
ta pozten naiz beste inori balio badio.

Maiz blokatu naiz hitz erditan, eskuak izerditan,
soluziorik ez da hiztegitan...
Ta gaueko ordu ttikitan
segitzen dut pentsatzen zer izan nahi ote dudan handitan.

Bizitzaren balada boladaz bolada joan zait
eta orain hitza nere bala da, jada,
ikasi nahi dut hiltzen bizitzarik bada.
Gorritoak ekarri nau maitsasun istorio hontara.

Rapa eta ni ni ta rapa,
tiki taka hasten naiz tipi tapa joaten banaiz hasten zait
tiraka,
bi kapa sortzen ditut ez nadin zernahi bilaka,
errimak obsesio bat dira ta.
Izan nahi nun pirata
baina marinela gisa etiketatu ninduten ta kaka,
etapaz etapa dator beheraka barne enbata,
lasai izenpe nezake ene partitze data.

Hau ta hori erraten,
beharrik ez naizen ari maitatu dezaten.
Azaletik ikusi dut zer eragin dezakeen,
minoria batentzat aritzeak ez dit lotsarik ematen.

Ez pentsa balantzak egin dunik dantza
nik desio nuen aldera aldiro.
Autokonfiantza ez da ene xantza ta jaso dut aski tiro.
Oholtzara nola igo?
Gu ohitu ginen ikusten plaza beteak husten
baina ez dut uzten ta eginen nuke berriro.

Sendi naizelarik desberdin
nahiago dut enea egin
bakoitzak nahi duena atera dadin
ez baita beti hobe elkarrekin.
Hontarako sortu nintzen ez dakit,
baina bizi naiz hau egiteagatik.

*Aspaldi hartu nau ni
ez gau bat ta ez gau bi
egin naiz zauriz zauri
baina orain xauri xauri
denboran hariz hari
amets bat josten ari
hitzak ditut opari
segiko dut kantari*



ODEI

